

"Provincia"-keriak eta Euzkadi

Deia, 1977-08-07.

Probintzia ez da *Provincia*.

Gipuzkoa-koa, Probintzia da; baina titulo bezala.

Bizkaia, "Señorio" zen bezala; Araba, "Hermandad", eta Nafarroa, Erresuma edo "Reino" zen bezala. Gauzak, argi; inor engainatu gabe.

Provincias-etan Espainia-ko Estatua zatitu zutenean, frantziarren bidez eta haiei kopiatzen izan zen: Baiona-ko Konstituzioa deitzen zaiona, 1808-an egin eta Jose Bonaparte-k Espainia-ko errege bezala argitaratu zuen, eta hemen esaten da, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba-ko fueroak (Espainia-ko Estatuan geratzen ziren bakarrak!) hurrengo Gorteetan aztertu behar zirela.

Espainiarrak, beti bezala frantziarren atzetik, 1833-go azaroaren 30-an sortzen ditu *Provincia* hoiek dekreto bidez.

Provincia honen zatiketa neurriak, artifizialak dira.

Kriterioak oso frantziar eta xinpleak izak ziren; Espainia estatuaren barrutikoak ezer kontuan hartu gabe.

Zatiketa honen juizioa ez dugu guk, "separatistak" egingo, ezaguna den espainol bateri emango diogu hitza.

Ortega y Gasset-ek dio ("La redención de las Provincias") zatiketa honek espainarra, espainiar arrunta, txikitu egiten zuela; gorputz aldetik, mindulindu eta flakustatu, eta ispiritu aldetik, berriz, zikindu, mirabetu eta ttartatu.

Hontan gaude berriz, gizona gizon-berritu eta zuzpertz nahiean.

Eta Euskal herrietan, Euzkadin, gure Eskualdeak bere duten berjabetasuna lortu behar dut; eta, gero, Herri bezala elkar osatu eta indartzeko, elkartuko dituen instituzio politiko bat behar dute.

Hau da Euzkadi.

Hasiera argi dago Estatuto zabal baten behar-gorrian gaude.

Hau *itzultzen* (ez "ematen") ez diguten bitartean, ez da gure herrian pakerik izango.

Provincia-keriarik ez du gure herriak gehiago jasango.